

MONDARRAIN / ARRANOMENDI (749 m).- Ategaitzetako (Errolanen pasabidea) igarobidearen ondoren, Laxia errearen sakan sakonak Mondarrain/Arranomendi eta Artzamendiko mendiguneen artean bidea egin du.

Mondarrain/Arranomendiko mendigune originalak Ainhoa eta Itsasu artean altxatzen ditu bere maldak. Garaiera apalekoa baina lerdana, irudi karakteristikoa ematen dion bere harrizko koroia originalagatik ezagun daiteke. Bere konposaketan granitoak baino elementu bat gutxiago duen kuartzita harkaitzarekin osatua dago.

Mendi honek duen forma hain erregularra glaziar ondorengo garaian izandako likidotzetik dator, Lapurdiko Atxuria, Ibantelli eta Larrun mendiaren Hegoaldea modelatu dituenak. Lokatz eta Kuartzitako blokez osatutako masa erraldoiak haranen parte handienak hartu dituzte, han eta hemen harkaitz kaos ikusgarriak sortuz, Mondarrain/Arranomendi mendiaren Mendebalean dagoen Basaburua haranen bezalakoa. Fenomeno honek argitzen du Latxia errearen ibilgua blokez oztopatzearen zergatia.

Urreztiraino iristen den eta erabat bertikala den harkaitz lerroak berrogeita hamar bat metroko altuera hartzen du, eskalada puruak eta segidakoak egiteko aukera interesgarriak eskaintzen ditu. Tontorrean mendiaren horma naturalak aprobetxatuz egindako gotorleku erromatar baten aurriak daude, garai batean behatoki moduan kokapen estrategiko zela adierazten du. Hemen urrezko erromatar domina bat aurkitu zen, geroago, XVIII. mendean Itsasuko presbiteriotik lapurtua izan zen.

Besteak beste, Eguzkimendi eta Artzamendirekin batera, garaiera apaleko baina euskal zeruertz izurtuaren bista zabalak dituen mendi multzo bat osatzen du.

Ez dira falta mendi honetan leize bat kokatzen duten elezaharrak, 7 buruko Herensugeren bizitoki, edo Basanderek bere ilea urrezko orraziarekin orrazten zuen tokia.

EGUZKIMENDI (844 m).- Lapurdi, Nafarroa-Beherea eta Nafarroaren arteko mugan dagoen Artzamendi mendiguneko mendi bat da. Tontorra puntazorrotza eta belartsua, eta 400 metroko altueratik Aritzakun harana menpean duten Itsusiko Harriekin (629 m) batera, haran hau Iparraldetik ixten duena. Aritzakun Haraneko urak eta Urritzate sakanekoak Bastan ibaia sortzen dute, zeinek Infernuko Zubipetik pasatu ondoren Bidarraira iristen da bere urak Errobi ibaikoekin bat egiteko.

Eguzkimendi eta Artzamendi mendien artean Mehatse lepoa dago. Hemen Burdin Garaiko historiaurreko nekropoli interesgarrienetako bat dago, bertan tumulu bat eta hainbat harrespil daude. Hauetako handienaren erdian 81 zenbakia duen mugarria jarri zuten. Lepotik oso gertu eta Mendiburuko Bordaren ondoan, Mehatseko Bizkarra izeneko menhir handia lurrean erorita dago.

Mendebalean, Latxia sakanaren bestaldean Gorospil, Urrezti eta Mondarrain/Arranomendi mendien maldak altxatzen dira.

ITSUSIKO HARRIA (629 m).- Harkaitz hauek oso erosiaturik dauden arrosa koloreko hareharrizko malda ebaki ederrak dira, Nondik Aritzakun haranaren gainetik pitoi karakteristikoko batzuk irteten dira. Bere goialdea berriz, belardi zabaleko goilautada zabal bat da, non ondar megalitiko ugari daude, bereziki Artzamendin, tontor garaiera eta mendiguneari izena ematen diona.

Harkaitz multzo nabarmen hau hainbat pitoi harritsuaz osatua dago: Mendebaldeko Punta, Ezpaltza, Itsusi, Martikoenea eta Zelaiburu. Azken honek bere Hegoaldeko malda malkartsuan Harpeko Sainduaren koba du. Kondairak, gazte baten desagertu buruz mintzo. Egun batean argi-pirrinta bat koban sartu zen eta barruan gaztea petrifikatua agertu zen, emakume bularra eta forma antropomorfikoa duen estalagmita bihurtuta. Erromes tokia, erdi erlijiosoa, erdi paganoa, seguruenik kristautze aurreko sinesmenak. Estalagmitak darion uraren sendatze ezaugarriek haran osoan zabaltzen dira eta koba barruan uzten dira ziriok, elorri gurutzeak, ume arropak...

MONDARRAIN / ARRANOMENDI (749 m).- Después del paso de Ategaitzeta (Pas de Roland), el profundo barranco de la regata de Laxia se abre camino entre los macizos de Mondarrain / Arranomendi y Artzamendi.

El original macizo de Mondarrain / Arranomendi eleva sus laderas entre Ainhoa e Itsasu, cuya cumbre principal de 749 m de altitud da nombre al macizo. De modesta altitud pero airosa, es reconocible por su original corona rocosa, que le confiere una silueta tan característica. Está constituido por una roca que por su composición se próxima bastante al granito (tiene un componente menos): la cuarcita.

La forma tan regular de esta montaña viene de su licuefacción de la era post-glaciaria, que ha modelado varias montañas de Lapurdi como Atxuria, Ibantelli y el flanco Sur de Larrun. Gigantescas masas de lodo y bloques de cuarcita han invadido la mayor parte de los valles, dejando aquí y allá impresionantes caos rocosos, tales como los del valle de Basaburua al Oeste de Mondarrain / Arranomendi. Este fenómeno explica la presencia de bloques que entorpecen el curso de la regata de Laxia.

Su escarpadura alcanza una cincuentena de metros de altura rigurosamente verticales, ofrece interesantes posibilidades de escaladas puras y sostenidas y llega hasta Urrezti.

En su cumbre se pueden ver los vestigios de fortificaciones romanas aprovechando las murallas naturales de la montaña, lo que evidencia que en el pasado tenía una estratégica situación como atalaya. Una medalla de oro romana fue encontrada en este lugar y posteriormente robada en el siglo XVIII del presbiterio de Itsasu.

Junto con, entre otras, Eguzkimendi y Artzamendi forma un grupo de montañas de altitudes humildes pero de dilatadas vistas sobre el ondulado horizonte vasco.

No faltan las leyendas que en esta montaña ubican una sima, habitada por Herensuge, un dragón de 7 cabezas o por Basandere, donde se peinaba su cabellera con un peine de oro.

EGUZKIMENDI (844 m).- Es una cumbre del macizo de Artzamendi, en la muga entre Lapurdi, Nafarroa-Beherea y Nafarroa. La cima puntiaguda y herbosa, junto con las escarpadas Peñas de Itsusi (629 m), que dominan desde 400 metros el fondo del valle de Aritzakun, cierra por el Norte este valle. Las aguas del valle de Aritzakun y las del barranco de Urritzate forman el río Bastan, que tras pasar bajo el puente Infernuko Zubia, llegan a Bidarra para unir sus aguas a las del río Errobi.

Entre las cumbre de Eguzkimendi y Artzamendi está el collado de Mehatse. En este lugar se encuentra una de las más interesantes necrópolis prehistóricas de la Edad del Hierro, donde hay un túmulo y varios cromlechs. En el centro del mayor ellos colocaron el mugarri nº 81. Muy cerca del collado y próximo a la majada pastoril de Mendiburuko Borda se encuentra caído el gran menhir de Mehatseko Bizkarra.

Al Oeste, al otro lado del barranco de Laxia, se elevan las laderas de los montes Gorospil, Urrezti y Mondarrain/Arranomendi

ITSUSIKO HARRIAK (629 m).- Estas peñas constituyen una bella escarpadura de arenisca rosada sumamente erosionada sobre la que emergen algunos pitones característicos sobre el valle de Aritzakun. Su parte superior sin embargo es una vasta meseta pastizales abiertos, donde abundan los restos megalíticos, especialmente en la cumbre más elevada y que da nombre al macizo: Artzamendi.

Este destacado conjunto de peñas esta constituido por varios pitones rocosos: Punta Occidental, Ezpaltza, Itsusi, Martikoenea y Zelaiburu. Esta última alberga en su escarpada vertiente Sur la gruta de Harpeko Saindua. La leyenda habla de la desaparición de una joven. Un día una ráfaga luminosa penetró en esta cavidad, y la joven apareció petrificada en el interior de la gruta, convertida en estalagmita de forma antropomórfica con torso de mujer. Lugar de peregrinaje, mitad religioso, mitad pagano, probablemente de creencias anteriores a la cristianización. La fama de las propiedades curativas del agua que emana de la estalagmita se extiende por todo el valle y en su interior se colocan cirios, cruces de espinos, ropas de niño...